



KANALAK

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak. Komunikazio, banaketa eta salmenta kanalak bereizi daitezke.

Gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, web orrialde bat sortu dugu eta bertan telefono zenbakia eta email helbide bat ere jarri dugu. Beraz, bezeroek internet edo telefono bidez gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Arazoren bat balego, telefonoz edo email bidez irtenbide bat aurkituko genioke. Bezeroekin harremanetan jartzeko internet, erabiliko dugu, eta horietan, gure telefono zenbakia eta email adieraziko ditugu.


Web orrialdean bezeroek, beraien iritzia emateko aukera izango dute. Beraien iritziak kontuan harturik, eta beraien gustuko dituzten gauzak kontuan harturik diseinu ezberdinetako sostenak egin ahalko ditugu.



Gure produktuak bezeroengana iritsi ahal izateko, banaketa modua aukeratu behar dugu. Bi mota daude; kanal zuzena eta zeharkako kanala. Gure aukera, zuzena izan da, horrela, beste enpresei gure produktua saltzea saihestuko dugu.

Banaketa mota hau bi modutara egin daiteke, guk, web bidez egingo dugu, online denda bat sortuko dugu eta bertan gure produktuak salgai jarri, horrela bezeroek online bidez erosiko dute gure produktua, eta guk, posta bidez egingo dugu banaketa. Bidalketa hori, garraio-enpresa baten bitartez egingo dugu, DHL edo Azkar enpresa moduko batzuen bidez.

Produktuak online saltzean, gure produktua Espainia osora zabaltzeko aukera izango dugu, horregatik aukeratu dugu bide hau erabiltzea.



Online denda bat da sostenak saltzeko erabiliko dugun kanala. Denda hau ezaguna egiteko modurik errazena, Interneta da.